

Mario Espliego bekadun artistak BilbaoArten erakusketa bat inauguratuko du forma eta elementu hutsalenetan modu inplizituan dagoen ideologiaren inguruan

Bilboko Udalaren ekoizpen artistikoaren zentroak *`Artefactos del encantamiento´* jarriko du ikusgai, maiatzaren 11tik 31ra

Bilbon, 2017ko maiatzaren 11n. BilbaoArtek maiatzaren 11tik 31ra bitartean 2016an beka bat lortu zuen Mario Espliego artistak sortutako bidaia proposatzen du. *`Artefactos del Encantamiento´* erakusketan artea eraikuntza eta ezarpen ideologikorako teknologia gisa ikus daiteke eta jendeak, oro har, bere eginda dituen konbentzio batzuk dislokatzen ahalegintzen da, gure errealitatean dauden artefaktu txiki-txikiak ikusgai jarritz.

Erakusketan abiapuntua gure arreta inola ere erakartzen ez duen argazki bat da: oinetakoak orpoan egindako urradura, sortutako zauri arina, agertzen duen irudia. Autorearentzat urradura horrek barruan biltzen du hasieran hutsaltzat jo daitekeena baino askoz problematika zabalagoa. Txikitasunak txikitasun, Espliegok argudiatzen du orban horrek agerian uzten duela nola hegemonia (beti) ezartzen den indarkeriaren bidez txikienetik.

Erakusketaren dinamikari begira, hari loteslea izango da kasu hori. Bilboko Udalaren ekoizpen artistikoaren zentroko erakusketa-gela okupatzen duten piezek, gehien bat eskulturak direnek, kasu jakin batzuen konbinazioen bidez egituratutako instalazioa eratzen dute: paristar talde eskultoriko apaingarri bat, kokodrilo batzuen estatuek osatua, seinu ideologiko bilakatzen da; forma suabe eta bihurriek indarkeria ideologikoaren praktikak ekarriko dizkigute gogora; liderrak goratzen dituzten loreak edo euren izaera burgesagatik gutxietsitako loreak; gerra-artefaktu bihurtzen diren margo-geometriak; ideologiaz betetako oihal-ereduak; eta abar.

Artefaktu txiki-txikiek, eguneroko elementuek, gure arreta inola ere erakartzen ez duten elementu sotilek, daukaten gaitasuna eta gordetzen duten eduki politikoa deskubritzera gonbidatzen gaitu BilbaoArteko erakusketa berriak.

Mario Espliego, Ikerketa, Arte eta Sormeneko masterra egina duena, Bilboko Udalaren ekoizpen artistikoaren zentrorra 'Artefactos del encantamiento' ekarri du, orain gutxi euren lanak, besteak beste, Arnhem Museum (Herbehereak) ARTIUM (Gasteiz), MACBA (Bartzelona) eta Tabacalera (Madril) espazioetan aurkeztu ondoren. 2016an BilbaoArtek beka emandako artista izan zen eta gaur egun Arte Garaikidearen Historiako Sailean doktoretza-tesia bukatzen ari da orain. Ikerketan formatu monumentaletik edo monumentalerantz sortutako indarkeriari lotutako problematikak aztertzen ari da.

El artista becado Mario Espliego inaugura en BilbaoArte una exposición que indaga en torno a la ideología implícita en las formas y elementos más insignificantes

El centro de producción artística del Ayuntamiento de Bilbao mostrará *‘Artefactos del encantamiento’* entre el 11 y el 31 de mayo

Bilbao, 11 de mayo de 2017. BilbaoArte propone, entre el 11 y el 31 de mayo, un viaje creado por el artista becado en 2016 Mario Espliego. La muestra titulada *‘Artefactos del Encantamiento’*, remite al uso del arte como una tecnología para la construcción e instauración ideológica y trata de dislocar algunas convenciones asumidas, visibilizando artefactos mínimos, que pueblan nuestra realidad.

El punto de partida de la exposición, una fotografía que literalmente pasa desapercibida en la muestra: una imagen que retrata la rozadura de un calzado en el talón, produciendo una herida leve. Para el autor esa pequeña rozadura aglutina de manera inherente toda una problemática mucho más amplia de lo que a priori se presenta como irrelevante. Pese a lo mínimo, Espliego argumenta que esa marca es reveladora de cómo se instala e impone la hegemonía (siempre) con violencia desde lo más pequeño.

En la muestra, este caso servirá de conector con la dinámica de la exposición. Las diferentes piezas que ocupan la sala de exposiciones del centro de producción artística del Ayuntamiento de Bilbao, en su mayoría escultóricas, componen una instalación articulada mediante diversas combinaciones de casos concretos: un grupo escultórico decorativo parisino, compuesto por unas estatuas de unos cocodrilos, deviene en signo ideológico; formas suaves y sinuosas que remiten a prácticas de violencia ideológica; especies florales que ensalzan líderes o son condenadas por su condición burguesa; geometrías pictóricas que se tornan en artefactos bélicos, patrones textiles cargados de ideología, etc.

La nueva muestra de BilbaoArte invita a descubrir la capacidad y contenido político de artefactos mínimos, elementos cotidianos, o imperceptibles y sutiles elementos de decoración.

Mario Espliego, Máster en Investigación Arte y Creación, llega al centro de producción artística del Ayuntamiento de Bilbao con *‘Artefactos del encantamiento’* tras presentar recientemente sus trabajos en espacios como Arnhem Museum (Netherlands) ARTIUM

(Vitoria), MACBA (Barcelona) o Tabacalera (Madrid). En el año 2016 fue artista becado por BilbaoArte y actualmente está finalizando su Tesis Doctoral en el Departamento de Historia del Arte Contemporáneo, en cuya investigación analiza distintas problemáticas ligadas a la violencia producida desde/hacia el formato monumental.

Informazio gehiago / Más información



BilbaoArte

Prensa y Comunicación / Prentsa eta komunikazioa

Alicia Prieto / Asier Amundarain

639 68 97 09

e-mail:prentsa@bilbaoarte.eus



NOTA DE PRENSA

Informazio gehiago / Más información



BilbaoArte

Prensa y Comunicación / Prentsa eta komunikazioa

Alicia Prieto / Asier Amundarain

639 68 97 09

e-mail:prentsa@bilbaoarte.eus